


burdin



mendeak 04

Trapagaran

Muskiz

Galdames

Sopuerta



04

Burdin mendiak

N-634 errepidea hartu behar da, eta gero BI-2701 errepidea; meatzaritzari atxikirik bizi izan diren herriak lotzen dituzte biek.

Aurreko orrialdean:

La Arboleda. Burdin meazulo agortu eta urpetuetan ur bareak, kare-haitzek eta ihiek ametsetako paisaia bat sortzen dute.

Orrialde honetan:

Muskiz. Muñatones Gaztelua.

Gotorlekuak garai nahasiak eta Lope García de Salazar kronista dakarzkigu gogora.

49. orrialdea:

Muñatones. Armarriak. Salazartarrenak hamahiru izar zeuzkan.



Trapagaran

Meataritzaren erreferentzia nagusi-etakoa da; izan ere, agerikoak dira jarduera horren aztarnak, burdin meaire zabalean ateratzeko lanek higaturiko paisaia honetan. Trianoko mendietan zehar (Ortuella, Muskiz, Galdames, edota Sopena ere) hedaturiko meatze hau Europako onenetakotzat hartu da beti, eta erromatarren garaian ere aski ezaguna zen. Orain dela ehun eta berrogeita hamar urte Bizkaiko siderurgia eta ekonomiaren abialdia ekarri zuen, baina hogeita hamar urte baino gehiago dira jarduna bertan behera geratu zela, meatzeak agortu eta gero. Hala ere, meataritzaren oroitzapenak bizirik dirau bertako jendearen gogoetan.



Zugaztieta

Udalerriko auzo meataririk garrantzitsuena da. Fantasiako paraje honetara iristeko, errepideaz gain, Larreinetako funikularra har daiteke, 1921ean inauguraturiko plano makurtua.

Beste auzo batzuk ez bezala, ez da meataritzako langileen etorrera masiboaren berezko emaitza. Aitzitik, plangintza erlatibo baten ondorioa da; haren arabera, ekimen pribatuko etxeak kokatu ziren aldapa batean, plaza mailakatu handi bat dagoen lekuan, Andra Maria Magdalena eliza buru delarik. Bertan elkartzen ziren, halaber, auzoko ekonomatuak, sindikatatuak, tabernak eta abar. Apurka-apurka ia etxe guztiak berri diren arren, oraindik ere badira xx. mendearen hasierako meatarien bizimodu eta gabeziak ulertu ahal izateko lekuko batzuk.

Baina herria bera baino areago, inguru honetako paisaia higatu bitxia da interesgarria: kareharriak eta laku artifizialak, bertan behera utzitako meatokietako krater urpetuak... Fantasiako paisaia irrealaren osatzen dute haranaren gainean zintzilikaturiko lur eremu garai eta berde honetan. Arestian golf zelai bat egin da bertan.

Muskiz

Garai batean meataritzari atxikia, udalerrri industrialak da gaur egun. Hiru parrokiak historikotan antolatzen da: San Julian, Done Joanek eta Pobeña.

Muñatones gaztelua

Muñatonesko San Martin inguruan, santu horren izenpeko ermita bat zegoen galtzada zahar baten ondoan, eta bertan fundatu zuten oinetxe bat Salazarrek –Burgosko mendietatik etorritako leinua–, xiv. mendean. Familia noble honek –bere jatorria elezaharretan galtzen zen– berehala egingo zuen gora eskualdean.

Inguru horretan instalazio industrialak daude gaur egun; gazteluari dagokionez, defentsarako zenbait eraikin metatzearen emaitza dela esan daiteke. Lehenagoko beste dorre bat estaltzen duen gotor-dorre garai eta hermetikoa da, harresiz inguraturik dagoena; harresiaren inguruan, berriz, hesi apal bat dago, angeluetan atetilat eta kuboak dituen.

Dorreak hiru solairu izan zituen, eta haietariko bakoitzak ondo zehazturik izan bide zituen funtzioak. Eskailera bat zeharkaturik, dobeladun ate garai zorrotz batetik sartzen zen bizitokietara. Lope García de Salazar bandokide eta historialariak egin zuen instalazioen parte bat –«Bienandanzas e Fortunas» liburuaren egilea–, xv. mendearen erdialdean.

Muñatones gazteluak Bizkaiko beste edozein eraikinek baino hobeto erakusten digu Erdi Aroaren amaierako bando gerren testuingurua, eta, horri dagokionez, Bizkaiko ondare elementurik ezagunena da.

Done Joanek eliza

Barbadun ibaiaren ezkerrean dago, Astillero auzoaren gainean. Oinplanoari dagokionez, gurutze latindar handia da; hiru tarteko habearte bakarra dauka, gurutzadura eta burualde errektangeluarra, bi gela txiki atxikirik dituen. Estaltzeko sistema orokorra

gurutze ganga da; mailakaturiko estribuak ditu, eta kanpoaldean harlandua. Eraikuntzak duintasun handia erakusten du: fatxada osoan harlandua erabili zen, bertan baitago eraikinaren asmo monumentala. Hiru kaletan modulaturik dago. Albokoetan estribuak daude, goiko mailako dorretxo kapiteldunei eusteko, teilatuaren lerroaren gainetik. Erdiko kalean erdi-puntuko sarrera dago, beste handiago baten barruan sarturik, eta leiho bat.

Gurutzadurako kaperen jabetzaren ordainean, Quadratarrek (Villariasko markesa eta Burgosko apezpikua) obra finantzatu zuten, 1742az geroztik. Pedro de Cerecedok marraztu zuen eraikin barroko hau, molde tradizional (ganga) eta soilean, baita zenbait ukitu klasizistarekin ere (dorreak). Sustatzaileak ezaguturik, kontserbadoregia izan zen.

Ezkerreko kaperan –bestea bezala, burdin hesi handi batez ixten da–, harri beltzeko nitxo bat dago, eta bertan **Villariasko markesaren irudia**: marmol zurizko tailla aipagarria da, agian Juan Bautista Oliveri gorteko eskultoreak egin, 1750 inguruan.



El Pobal burdinola

Bide gurutzera itzuli ondoren, lau kilometro aurrerago, El Pobal burdinola dago –helburu didaktikoetarako birgaitu da–, Sopuertara doan errepedearen azpian, Barbadun ibaiaren ezkerreko ibar hezearen bihurtze batean. Esangura berezia du burdinolaren jardunak etenik gabe iraun izanak, XVI. mendetik –orduan eraiki baitzen– XX. mendean ondo sartu arte, burdin mea tratatzeko eta produktua maneiatzeko moduak guztiz zaharkiturik zeudela. Gotor-dorre zapal batez gain, burdinola hidraulikoaren instalazio eta tresna tradizionalen parte bat ere kontserbatzen da: presa, ubidea, gurpilak, ikaztegiak, sutegia eta lantegia, labea, maza eta orain dela ehun urte baino

gehiago egindako beste tresna eta erreminta batzuk. El Pobalen forjaketa tradizionalaren erakustaldiak egiten dira astero. Eta lekua erosoago bisitatu ahal izateko, aparkaleku zabal bat egin da; bertatik burdinolara jaisten da.



50. orrialdea, goian:

Galdames. Bertako meategiak aspaldi agortu arren, Martínez Rivas meatzaritza enpresaria izan zenak monumentu bat dauka herrian.

50. orrialdea, behean:

Muskiz. San Juan (1742). Ordaintzaileek, Quadra familia gortesauak, ordurako modan ez zegoen eliza mota bat onartu zuen.

Orrialde honetan:

Sopuerta. Mercadilloko eliza. Ama Doloreeta-koaren erretaula (1744), baldakin apaindu bat, bitxia gertatzen da hemen.

Galdames

Trianoko mendien atzealdean kokaturik, meatzaritzari loturiko udalerrria izan zen Galdames ere. Muskizetik abiatzen den errepeidea harturik, Arenao inguruan, Galdamesera jo daiteke, ezkerretara, edo, bestela, Sopuertara.

Arenatzako haitzuloan margoturiko irudiak

San Pedro auzo zentralera iritsi baino lehen, ezkerretara eta Trainoko mendi kareharrizkoen hegalean, Arenatzako haitzuloa irekitzen da, lehen mailako arkeologia-aztarnategia: Aro Paleolitikoko margolan polikromoak ditu, haietariko baten bat galeria batean, eta gainerakoak eguzki argirik gabeko barne santutegizat harturiko gune batean. Azken leku honetan hamar bat irudi daude –orein emeak–, haietariko batzuk egoera txarrean. Trazuak kolore gorrixkaz daude eginik, elkarren ondoan ipinitako tanpoien teknika baliatuz. Beste leku batean argi sumatzen da zezen baten irudia, artista garaikide batek trazu jarraituaz egin.

Inguruko margolanekin alderatuz gero –Castillo eta Altamirakoekin, adibidez–, Arenatzakoak K.a. 14.000 inguruan margotuko zirela pentsa daiteke. Normalean, espezialistak baino ezin dira sartu haitzulora.

José María Martínez de las Rivasen monumentua

San Pedro auzoko plazan dago, santu beraren izenpeko parrokia-eliza neoklasikoarekin (Juan Bautista Belauntzarán, 1825) eta udaletxearekin (Atanasio Anduiza, 1900) batera.

1850ean jaiotako meatzaritza-enpresaburu eta industrialari handi

baten omenez egin zen. Garaiko bizitza politikoan parte hartu zuen, eta langile nahiz sindikalisten oniritzia lortu zuen.

Hain zuzen ere, herriak ongiletzat zuelako eraiki zuen monumentua, 1931ean; Manuel Maria Smith arkitektoak egin zituen oinarria eta idulki garaia, eta Benlliure eskultoreak brontzezko erliebe eta eskultura exentua. Erliebeetan, omenduaren enpresa-jarduna deskribatzen da; eskultura exentuetan, berriz, langileak, emakume bat eta ume bat ageri dira esker onez, goian titularraren gorputz osoko irudia dagoela.

Sopuerta

Bide gurutzera itzulirik, Barbadun ibaiaren ibilbideari jarraituko diogu, Sopuertako haranean sartzeko: sei parrokia historikotan antolatutako auzo txiki eta baserriek osaturiko paisaia leuna da. Nekazaritza, abeltzaintza eta meatzaritza izan dira jarduerak tradizionalak. Meatzaritza –dagoeneko desagerturik– gehienbat Alen auzoaren inguruko mendietan kokatu zen.

Mercadilloko eliza

Auzo honen erdigunean dago, udaletxearekin eta beste etxe batzuekin batera. Lau tarteko habearte bakarreko eraikina da, alboetan haren garaiera bereko kaperak dituena; erdian hiru horma-ataleko kaperak alakatu handiago bat dauka; eta azken honen alboetan atxikirik, sakristia hexagonalak. Sabaietan izar gangak ditu, hainbat eratako nerbioak dituztenak. Dorreak, oinaldean kokaturik, portale bat babesten du; bestetik, lau gorputz ditu, zein bere azpikoa baino estuagoa, eta goikoan kanpai gela dago.

Habearte bat eta estribuen artean kaperak garaiak dituen tenplu erdua xvi. mendekoa da, baina Mercadilloko eliza askoz ere geroago datatu behar da, 1678an. Juan Setienek marraztu bide zuen, eta dorrea Vicente de Aguilerak, 1728an, biak barroko neurritsuaren zaleak.

Erretaula nagusia. Kaperaren markoari egokituriko zurgintza-lan barroko ederra da: taxu hautsikoa da, eta zutabe salomoniko erraldoiak erabiltzen ditu; apaingarriz oso kargaturik dago –landare mamitsuak eta mahatsak–. 1710 ingurukoa bide da, eta garai bereko irudi exentuak hartzen ditu, titularrarena izan ezik –Andra Maria eseria–, xvi. mendearen erdialdeko irudi errenazentista baita. 1777an polikromatu zen.

Andra Maria Doloretakoaren erretaula. Ezkerreko kapera batean dago. Oso tipologia berezikoa da, baldakina eta orbel eta kukuluz hornituriko zutabe salomonikoak dituela. Domingo Gutiérrez erretaula-egilearen baldintzekin egin zen, 1744an.

La Puenteo dorrea

Errepidearen eskuineko ertzean dago, Carralera bidean, hesituriko finka baten barruan. Leihate bikoitza da interes-garriena, galtzadari begira dagoela, estandartea balitz bezala. Alfiz konopial bikoitz baten azpian dago, eta konopialak dira, halaber, bolez apainduriko baoak. Horrez gain, xvi. mendearen hasierako armarritxo bana dute, bost zumar orri eta karaktere gotikoetan eginiko IHS idazkuna dituztenak, molde jasoan eginak.

Carralgo eliza

Apur bat aurrerago eta alde berean dago. Azken buruan, Mercadilloko elizaren tipologia errepikatzen du, sakristia barne. Oinaldean erdiraturik lau gorputzeko dorrea dago: lehenengoan ataripea dago, eta azkenaurrekoan kanpai gela. Hasiera batean leku gorago batean egon zen Done Martie eliza, eta 1728an ezarri zen oraingo kokagunean, Juan Andrés de Llagunok eta Lucas Ibarrolak marraztu ondoren. Harritzekoa da hain data aurreratuan halako tipologia zaharra eta halako molde barroko neurritsua baliatu izana.

Erretaula nagusia. Eite alakatua dauka, eta maskor itxurako akabera, kaperaren markoari egokitua; zutabe salomonikoen bidez eraturiko eta mahats zein landare





52. orrialdea:
Sopuerta. Carraleko eliza. Jesukristoren taila gotikoa, XVI. mendekoa, Enkarterrietako zaharrenetako bat da.

Orrialde honetan:
Avellanedako Juntetxea. Erdiko dorre zahar-berritua eta, haren ondoan, korrejidorearen etxea zaharra, ermita bat, oraingo museoa, etab. Leku historikoa da, Enkarterrietako Batzartokia.

mamitsuz kargaturiko egitura da. Ikonografia aberatsak Done Martieren biografia goraipatzen du, erliebean zizelkaturiko istorioekin. Francisco Martínez de Arce marraztu zuen, 1686an, eta Santiago Castaños bilbotar eskultore apalak egin zuen.

Kristoren erretaula (ezkerreko lehenengo kaperan): estilo berekoa da eta agian egile berarena; gurutzefika askoz ere zaharrago eta bikain baten zerbitzuan dago (XIV. mendearen erdialdeko eskultura gotikoa).

Jauregi multzoa

Gotikotik neoklasizismora doazen jauregi batzuei esker, toki berezia da Carral, eskualdearen baitan. Salgai nahiz bidaiarientzako igarolekua izanik, beren etorkiaren eta liberaltasunaren aztarna lagako zuten hainbat familia kokatu ziren bertan, Berant Erdi Aroz geroztik.

Haien artean, Okondogoi eta Okondobarreneko jauregi barrokoak eduki zituztenak, eliza baino metro gutxi batzuk aurrerago. Lehenengoaren hegoaldeko fatxadaren beren burua irudikarazi zuten jabeek –Miguel Okendo eta Antonia Murga–, ileorde eta garaiko jantziekin apaindurik. XVIII. mendearen erdialdeaz geroztik, bidaiariren begia engainatzen jarraitzen dute beren «trompe-l'oeil» erretratuek, leihotik begira daudelako itxurak eginez. Guztiz bitxiak dira margolan rokoko hauek.

Avellanedako multzoa

Mendate txiki bat igorik, Loizaga jauregia –XVII. mendeko kapare etxearen adibide ona, baina bizilagunik gabeko baserri soila gaur egun– errepidearen eskuinaldean utzi ondoren, Avellanedara iristen da.

Eskuinetara San Bartolome eliza apala dago: XVI. mendeko eraikin baten gainean 1954an egindako errestituzio sakon betan emaitza da, idazkun baten arabera.

Haren gainean, Urrutia dorre –edo jauregi-dorra– dago, oso gaizki

kontserbaturik: estilo errenazentistakoa da, lehenagoko ukitu gotiko batzuk dituela. Sarrera dobeladuna eta leiho dinteldu eta arku formakoak ditu, bolez dekoraturik.

Handik metro gutxitara, Enkarterri osoan sinbolismorik handiena duen eraikin zibila dago: Avellanedako Batzar Etxea, eskualdeko etxe politikoa. Gaur egun, foruei eta askatasun zahar nahiz berriei buruz hitz egiten digun eraikin multzoa da. Batzar Etxea, korrejidorearen etxea, ostalua eta Aingeru Guardako ermita dira garrantzitsuenak. Gainera, museo berria dago.

Paraje garai horretan bildu ziren enkarterritarrak mendez mende, aire zabalean, guztien arazoak konpontzen ahalegintzeko. Gerora, haranak eta kontzejuak ahalduak bidaltzen hasi zirenean, entzutegia eta batzar etxea eta espetxea eraikiko ziren, baita korrejidorearen egoitza ere. 1535erako eginek zeuden eraikinetatik, hala ere, ez bide da ezer gelditzen, eta ezin da zehaztu hasierako batzarrak zein lekutan egiten ziren. Badakigu, ordea, erabateko berritzea XVII. mendekoa dela, ordukoa baita armarrria, 1635ean dataturik dagoena.

Baserri itxurako eraikin hura ilaunduz joan zen apurka-apurka, harik eta 1942an, eraldaketa sakon baten ondorioz, egungo antz ausazkoa hartu zuen arte, aldi berean militarra eta bitxia. Azkenik, 1992-1994 bitartean beste eraikin bat atxiki zitzaion, museo gunearen zabalkuntza dena. Eskualdeko erakundearen programak (Avellanedako Batzarrak) eta Enkarterriren iragan historikoa (historiaurretik XIX. mendera arte) biltzen ditu hainbat aretotan.

Aingeru Guardako ermitan, idazkunez hornituriko mugari erromatar bat egon zen luzaroan. Balmasedarekiko mugatik ekarri zen, eta K.o. 238 ingurukoa da. Castro Urdialesera bidean, inguru hauek zeharkatzen zituen galtzada erromatarren konponketaren berri ematen du testuak.

